

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAK 2018KO OTSAILAREN 18AN EGINDAKO BILERAREN AKTA

Presidenteak deituta, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseilua bildu da, Osakidetzaren egoitzan, 2019ko otsailaren 18an, 11:00etan, modu ez-presentzialean, eta honako hauek dira bertaratutakoak eta gai-zerrenda:

DEITUTAKOAK

PRESIDENTEA

Jon Darpón Sierra jauna

PRESIDENTEORDEA

Iñaki Berraondo Zabalegui jauna

KONTSEILUKIDEAK

Alberto Alberdi Larizgoitia jauna
Hernando Lacalle Edeso jauna
Fátima Ansotegi Elordi andrea

IDAZKARIA

Ibon Etxeberria Olañeta jauna

Era berean, Juan Luis Diego Casals jauna, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusia deitu da Kontseiluaren bilerara, presidenteak gonbidatuta.

GAI-ZERRENDA:

LEHENA.- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendaritzako langileen ordainsariaren igoera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Osasuna Antolatzeko Legearen 27.3 artikulua xedatzen duenez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoan zuzendaritzako langileen ordainsari-erregimena Administrazio Kontseiluak ezarritakoa izango da eta, nolana ere, urriaren 28ko 14/1988 Legeak, Goren-Kargudunen Lansariei buruzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren Legeak eta arloan aplikatu behar diren gainerako xedapenek ezarritako mugak bete beharko dituzte.

Urriaren 28ko 14/1988 Lege horren 4. artikulua xedatzen duenez, autonomia-erkidegoko zuzenbide pribatuko sozietate publiko eta erakunde publikoetako zuzendaritza-karguen ordainsari finakoak eta aldizkakoak, antzinasunagatik legezkiekeen zenbatekoak salbuetsita, euren administrazio-kontseiluak ezarriko dituzte, eta bereizita agertuko dira ekitaldi bakoitzeko aurrekontuen legearen barruan dagokien partidan. Ordainsari horiek ezin dituzte inolaz ere gainditu sailburuorde karguarentzat ezarritakoak.

Otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldekideen estatutu pertsonala arautzen duenak (indarrean, ekainaren 26ko 1/2014 Legeak, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatatzak Arautzen dituenak, hirugarren b) xedapen iragankorrean xedatzen duenez), hau dio 6. artikuluan: *«Kasuan kasuko organo artezkariak edo administrazio-kontseiluak ezarriko du zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldekideen ordainsari-araubidea. Kontzeptu guztiengatik, orotara hartuta eta datorren atalean aipatzen diren pizgarriak barne, jaso daitekeen gehienezko ordainsaria urteroko aurrekontu-legeak adierazitakoa izango da»*.

Bestalde, Osakidetza Ente Publikoaren Estatutuek (255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa) 8.5.h) artikuluan diotenez, antolakunde zentralari dagokio ente publikoko zuzendaritzako langileen lansariak ezartzea, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko Legearen 27.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2/2019 Legearen, otsailaren 14koaren, 2019ko ekitaldirako aurrekontu-neurri premiazkoenaren, 2. artikulua, ordainsariei eta luzapeneko beste alderdi batzuei buruz dagokienez, hau ezartzen du: 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien aldean % 2,25 handituko dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen zerbitzura dauden eta lan-kontratukoak ez diren langileen urteko ordainsari osoak, baita lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta berdinetsitakoen, behin-behineko langileen eta zuzendaritzako langileen ordainsariak ere.

Hau ere ezartzen du: Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legearen II. tituluko III. kapituluaren ezarritakoa aplikatuko da 2019ko ekitaldian, aurreko lerrokadan aipatutakoan izan ezik.

Horretarako, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoko zuzendari nagusiak aurkeztutako proposamena ikusita eta administrazio-kontseilu honen eskumenak, arestian aipatutako araudian ezarritakoak, betez, apirilaren 11ko 2/2017 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, 23. artikuluan xedatutakoaren arabera, erabaki hau hartzen da:

ERABAKIA

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publikoko zuzendari-kargudunen urteko ordainsari osoak % 2,25 handitzea 2019ko ekitaldian, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.

Atxikita, Osakidetzako zuzendaritza-kargudunen 2019ko ordainsarien taula.

ERANSKINA, OSAKIDETZAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN 2019KO OTSAILAREN 18KO ERABAKIARENA.
OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZAKO LANGILEEN LANSARIEN TAULA - 2019. URTEA -


Zerbitzu-erakundea		Zuzendaritza-postua	URTEKO ZENBATEKOA	HILEKO ZENBATEKOA
Zuzendaritza nagusia		Zuzendari nagusia	83.497,09	5.964,08
		Asistentzia Sanitarioko Dibisio Korporatiboko zuzendaria	78.589,68	5.613,55
		Ekonomia eta Finantzetako Dibisio Korporatiboko zuzendaria	77.581,44	5.541,53
		Giza Baliabideetako Dibisio Korporatiboko zuzendaria	77.581,44	5.541,53
1. taldea	ESI Araba ESI Donostialdea ESI Ezkerraldea-Enkarterri- Gurutzeta	Zuzendari gerentea	82.665,10	5.904,65
		Integrazio Asistentzialeko zuzendaria	78.536,62	5.609,76
		Zuzendari medikoa	78.536,62	5.609,76
		Erizaintzako zuzendaria	66.957,77	4.782,70
		Ekonomia eta Finantzetako zuzendaria	75.639,25	5.402,80
		Pertsonalaren zuzendaria	75.639,25	5.402,80
2. taldea	ESI Bilbo-Basurto ESI Barrualde-Galdakao Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea	Zuzendari gerentea	79.321,99	5.665,86
		Integrazio Asistentzialeko zuzendaria	75.352,70	5.382,34
		Zuzendari medikoa	75.352,70	5.382,34
		Erizaintzako zuzendaria	61.078,14	4.362,72
		Ekonomia eta Finantzetako zuzendaria	71.160,54	5.082,90
		Pertsonalaren zuzendaria	71.160,54	5.082,90
3. taldea	ESI Debagoiena ESI Bidasoa ESI Debarrena ESI Goierrri Garaia Urola ESI Barakaldo-Sestao ESI Uribe	Zuzendari gerentea	74.312,62	5.308,04
		Arlo Medikoko Asistentzia Koordinatzeko zuzendaria	70.598,05	5.042,72
		Erizaintzako Arloko Asistentzia Koordinatzeko zuzendaria	53.054,67	3.789,62
		Ekonomia eta Finantzetako zuzendaria	63.168,91	4.512,07
		Pertsonalaren zuzendaria	63.168,91	4.512,07
		4. taldea	Arabako Osasun Mentaleko Sarea Santa Marina Ospitalea Gorliz Ospitalea	Zuzendari gerentea
Zuzendari medikoa	65.493,17			4.678,08
Erizaintzako zuzendaria	49.796,46			3.556,89
Ekonomia eta Finantzetako zuzendaria	57.989,74			4.142,12
Pertsonalaren zuzendaria	57.989,74			4.142,12
Arabako Errioxa ESI	Zuzendari gerentea		68.220,73	4.872,91
	Erizaintzako zuzendaria		49.796,46	3.556,89
	Kudeaketako zuzendaria		57.989,74	4.142,12
Larrialdiak TTH Euskal Zentroa ESI Tolosaldea	Zuzendari gerentea		68.220,73	4.872,91
	Kudeaketako zuzendaria		57.989,74	4.142,12
Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea	Zuzendari gerentea		68.220,73	4.872,91

SEIGARRENA.- Eskariak eta galderak

Eta zerrendan beste gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da 2019ko otsailaren 18an, 12:00etan.



**IBON ETXEBERRIA OLAÑETA
IDAZKARIA**



**JON DARPÓN SIERRA
PRESIDENTEA**